

## ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE)

*HASIERAKO OHARRA. 2022ko 40. astean arnas infekzio akutua (AIA) zaintzeko denboraldi berri bati hasiera eman zitzaion. Datozen asteetan aldaketak eta berritasunak txertatuko dira txosten honetan. Adibidez, hemendik aurrera, AIAREN tasak EAEko Lehen Mailako Arretako kontsulta guztietatik lortutako datuekin kalkulatu dira, eta ez soilik orain arte bezala jagoletatik eratorritakoekin.*

### 44. astea (2022/10/31-2022/11/06)

### 2022-2023 denboraldia


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 366,45 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (462,06/100.000 aurreko astean).
- Laborategira bidalitako 51 lagin jagoleen % 72,5 baieztatu da, 13 gripe birus, 7 SARS-Cov-2 eta 3 ABS antzeman direlarik. 8 adenobirus detektatu dira.
- Behera egin du EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman gripe-birusaren detekzio kopuruak.
- COVID-19ak eragindako ospitaleratze berrien kopuruak behera egin du aste honetan.

### AIAren jagoletza Lehen Mailako Arretan

#### Zaintza sindromikoa


Lehen Mailako Arreta-sarean hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 366,45 kasukoa izan da (462,06 kasu/100.000 aurreko astean), denboraldia hasi zenetik erregistratu den baxuena, baina baliteke aste honetako jaiegunaren (azaroak 1) eragina izatea. Lurralde historikoka, tasa 337,69/100.000 izan da Araban, 376,36/100.000 Bizkaian eta 363,90/100.000 Gipuzkoan.

AIAren intzidentzia-tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2022-2023, EAE



Adin-taldearen arabera, AIA tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da, 2300,69 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 469,09 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan, baina ikusi beharko da bilakaera hau hurrengo asteetan baieztatzen den edo aipaturiko jaiegunaren ondorioa izan den.

**AIAren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera  
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**




Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, handiena Arabar Errioxa ESIan izan da, eta txikiena Bidasoa ESIan.

**AIAren intzidentzia-tasak eta tasen arrazoa ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**

ESI	Tasa 43. astea	Tasa 42. astea	Tasen arrazoa (% 95 KT)
Araba ESI	370,70	477,37	0,77 (0,72-0,84)
Arabar Errioxa ESI	530,05	555,70	0,95 (0,67-1,35)
Barakaldo-Sestao ESI	337,51	429,05	0,78 (0,69-0,89)
ESI Barrualde-Galdakao ESI	374,41	510,32	0,73 (0,68-0,79)
OSI Bilbao-Basurto ESI	391,77	493,33	0,79 (0,74-0,85)
Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta ESI	400,65	505,76	0,79 (0,71-0,88)
Uribe ESI	331,52	418,19	0,79 (0,72-0,87)
Bidasoa ESI	264,39	317,27	0,83 (0,69-1,00)
Debarrena ESI	372,80	519,71	0,71 (0,61-0,84)
Debagoiena ESI	314,95	489,58	0,64 (0,54-0,77)
Donostialdea ESI	348,08	407,60	0,85 (0,79-0,92)
Goierri-Urola Garaia ESI	448,21	547,00	0,81 (0,72-0,93)
Tolosaldea ESI	392,08	523,81	0,74 (0,64-0,88)

Populazio orokorraren gripe-sindromearen kasuak eta 2 urtetik beherakoen bronkiolitisenak diagnostiko-kodeen arabera bereizita lortu dira. Gripe-sindromearen tasak behera egin du hiru lurralde historikoetan, Bronkiolitis-tasak ez bezala, hiruretan egin baitu gora.


**Tasa lurralde historikoaren eta aste epidemiologikoaren arabera  
Lehen Mailako Arretako sarea. 2022-2023, EAE**



### Zaintza jagolea

Aste honetan, AIArako erreferentziako laborategian 51 lagin jagole aztertu dira eta hauen % 72,5 baieztatu da, 13 gripe birus (guztiak AH3), 7 SARS-Cov-2 eta 3 ABS antzeman direlarik. 8 adenobirus eta lagin berean 2 edo 3 birus identifikatutako 4 koinfekzio ere detektatu dira.

**AIA intzidentzia-tasa LMAN eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua,  
aste epidemiologikoaren arabera. 2022-2023, EAE**



Gripearen positibotasunak behera egin du berriro aurreko astearekin alderatuta (% 32,1etik % 25,5era) eta gorantz aldiz SARS-CoV-2arenak (% 13,7 aste honetan). 5 errinobirus detektatu dira, hau da, % 9,8ko positibotasuna (% 11,1 aurreko astean) eta adenobirusaren detekzioek goranzko joeran jarraitzen dute (% 8,6tik % 15,7ra).

**Positibotasunaren ehunekoa laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2022-2023, EAE**


	44. astea		43. astea		2022-2023 hasieratik	
	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	13	25,5	26	32,1	116	34,9
SARS-CoV-2	7	13,7	10	12,3	37	11,1
ABS	3	5,9	4	4,9	17	5,1
Metaneumobirus	1	2,0	3	3,7	7	2,1
Parainfluenza	4	7,8	2	2,5	23	6,9
Adenobirus	8	15,7	9	8,6	19	5,7
Errinobirus	5	9,8	9	11,1	59	17,8
Urtaroko CoV	1	2,0	2	2,5	5	1,5

**Zaintza biologiko ez jagolea**

EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman gripe-birusaren detekzio kopuruak beherantz jarraitzen du. Aste honetan detektatutako 227 gripe-birusetatik, 152 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 73 A(H3), bat A(H1)pdm09 eta beste bat B motakoa.

2022/40 astetik 1451 detekzio erregistratu dira, 1439 (% 99,2) A motakoak eta 12 (% 0,8) B motakoak. Azpitipatutako A motako 500 birusetatik, 490 (% 98,0) A(H3) eta 10 (% 2,0) A(H1)pdm09 izan dira.

**Asteko Influenza detekzio kopurua. IMS. 2022-2023, EAE**




## COVID-19ren zaintza espezifikoa

60 urte edo gehiagoko populazioan, 44. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa metatuak behera egin du berriro, eta 110,40 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (144,42 kasu 100.000 biztanleko aurreko astean), 111,46 gizonetan eta 109,57 emakumeetan (Iturria: ABG).

Osakidetzaren Diagnostiko Biologikoko Sareko Mikrobiologia Zerbitzuen datuen arabera, txosten honen egunean, SARS-CoV-2aren aldaeratarako PCR proba espezifikoak lagin positiboen % 30ari egin zaizkie. Guztiak Omikron aldaerakoak izan ziren, eta horietatik % 74 BA.5 azpialdaerakoak, % 25 BA.4/BA.5 eta beste % 1a BA.2.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera (OBIEE), 44. astean SARS-CoV-2rako IAPD positiboa zuten 185 paziente ospitaleratu ziren EAEn (203 aurreko astean), 87 emakume eta 98 gizon. Ospitaleratutako pertsonen % 79 60 urtetik gorakoa zen.



OBIEEtik ateratako datuen arabera, 44. astean COVID-19aren 32 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (45 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 17koa izan da. Aurreko bi asteekin alderatuta, kasuen eta kasuak dituzten zentroyen kopurua jaitsi egin da.

AIAREN aktibitatearen inguruko informazioa zehatzagoa ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB)

2022ko azaroaren 9an

**Zainketa Epidemiologikoa**  
**Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**